

11. SYNERGIE DES FEMMES CONTRE LES VIOLENCES SEXUELLES ET/OU BULLENGO ETXEA

(27-28 ARGAZKIAK)

Zer daukate amankomunean 27 eta 28 argazkiko emakumeek? Denek daramate zerbait bizkar gainean: batak egurra, beste batek umetxoa... eta hirugarrenak? Zer darama bizkarrean? Zertarako? Horrela dio 27. Argazkiko testuak "komunitate oso baten etorkizuna emakume bakar baten lanaren baitan dago".

"Imajinatu Masisiko desplazatu-esparruan bizi den emakume bat zarela. Imajinatu gizartearen garapenerako gakoa zarela. Imajinatu KEDko etorkizuna zure eskuetan dagoela" (ALBOANen Mujeres desplazadas bideoa).

KED kaosetik eta txirotasunetik atera nahi duen edozein proiektuk emakumea bere ardatz zentralean jarri behar du. Bizi garen gizarte-sisteman jaiotzean dugun sexuaren eraikuntza du oinarri. Gizarte-eraikuntza horrek eta sistema horrek desberdintasunak eragiten dituzte gizon eta emakumeen artean, eta gizartean ditugun aukerak baldintzatzen eta mugatzen dituzte (maila pertsonalean, laborean, politikoan, ekonomikoan, zein sozialean). Sistema horrek, botere-harreman desberdinak ezartzen ditu eta emakumezkoen posizioa eta kondizioa ahulagoa izan dadin eragiten du. Sexu-indarkeria gerrako arma gisa baliatu izan da gatazketan, eta helburu militarrek eta politikoak izan ditu.

KED-eko meatzaritza Afrika erdialdeko emakumeek bizi duten egoera larriarekin oso lotuta dago. Sexu indarkeria terrorismo mota bat bilakatu da; izan ere, herritarrak beren herrietatik bo-



11. SYNERGIE DES FEMMES CONTRE LES VIOLENCES SEXUELLES ETA BULENGO ETXEA

(27-28 ARGAZKIAK)

tatzeko eta meategien ustiaketak dauden lurren gaineko kontrola eskuratzeko erabiltzen da, izua eragiteko gerrako arma gisa.

Bi lotura zuzen dago sexu-indarkeriaren eta legez kontrako meatzaritzaren artean: batetik, talde armatuen eskutik emakumeen bortxaketak, komunitateak beren lurretatik kanporatzeko eta horrela baliabide naturalak ustiatu ahal izateko; bestetik, meategietan edo meategiei lotutako zerbitzuetan lan egiten duten emakumeen erasoak daude, euren gain boterea erakutsi nahian. Lan-esplotazioa jasaten dute (askotan ez zaie ordaintzen) edota sexu-esplotazioaren biktima dira.

Nazioarteko komunitatea gero eta kezkatuago dago gai horren inguruan eta, ondorioz, zenbait ebazpen eman ditu Nazio Batuetako Segurtasun Kontseiluak¹. Ebazpen horietan emakumezkoen, bakearen eta segurtasunaren gaiak lantzen dira. Bakerik edo segurtasunik gabeko aldietan emakumezkoek jasaten duten eragin bereizgarrian jartzen da arreta; bakea eraikitzekeo prozesuetan duten zeregina onartzen da, eta aitortzen da beharrezkoa dela emakumezkoek ere parte hartzea erabakiak hartzeko uneetan, aurrez aurre dituzten egoerak aldatzeko.

1 Nazio Batuen Erakundeko ebazpenak: 1820 Ebazpena – emakumeen papera bakearen erai-kuntzan eta biolentzia sexualaren aurrean dagoen inpunitatea gerrarako taktika gisa. http://www.ipu.org/splz-e/cuenca10/UN_1820.pdf

1888 Ebazpena – bakea mantentzeko egiten diren operaziotako mandatuetan xedapen zehatzak egiteko emakumeak eta haurrak babesteko gatazka armatuetan gertatzen den biolentzia sexualen aurrean. <http://www.acnur.org/t3/fileadmin/Documentos/BDL/2011/8237.pdf?view=1>

1889 Ebazpena – gatazka armatuetan emakumeen papera. <http://www.acnur.org/t3/fileadmin/Documentos/BDL/2011/8236.pdf?view=1>

1960 Ebazpena – emakumeen aurkako errepresioa gerrarako arma gisa, gizartearen aurkako krimen gisa zehazten du. <http://www.acnur.org/t3/fileadmin/Documentos/BDL/2011/8324.pdf?view=1>

2106 Ebazpena – sozietate zibilaren eta Estatu-kideen arreta eskatzen du. <http://www.acnur.org/t3/fileadmin/Documentos/BDL/2014/9577.pdf>

(Goiko linkak 2018ko urtarrilak 12an izan ziren ikuskatuak)

11. SYNERGIE DES FEMMES CONTRE LES VIOLENCES SEXUELLES ETA BULENGO ETXEA

(27-28 ARGAZKIAK)

Synergie des femmes contre les violences sexuelles erakundearen eginkizuna KED-an emakumeek jasan duten sexu-indarkeriaren aurka egitea da; 2000 urteaz geroztik gaude ALBOANen elkarlanean. Laguntza medikua, laguntza psikosoziala eta birgizarteratze ekonomikoa eskaintzen ditu erakundeak. Horretaz gain, komunitatearekin sentsibilizazio lana egiten du erakundeak alde batetik sexu-indarkeria saihesteko, eta bestetik biktimak babestu beharra dagoela azpimarratzeko.

Bulengo Etxea Synergy erakundearen ekimen bat da, eta emakumeek emakumeentzako kudeatzen duten gune bat. Honen helburua arreta mediku, sozial eta ekonomikoa ematea da. Bulengo Etxeak laguntza psikosoziala eskaintzen du, terapia eta familia bitartekaritza Goman biolentzia sexuala jasan duten biktimentzako. Bulengo Etxeak 25 emakume artatzen ditu. Etxe honetan honako premisa hauetan egiten dute lan: sendatzea, erreparazio eta ahalduntzea. Emakume bakoitzaren egonaldiaren iraupena desberdina da bakoitzak pairatzen duen egoeraren larritasunaren arabera, fisikoki sendatzeko denboraren arabera, eta bestelako zauriez sendatzeko denboraren arabera; izan ere, emakume hauei euren familiak ez diete onartzen eta haien komunitateetatik kanporatuak izaten dira eraso sexualen biktima izan direla jakiten denean.

➤ Bideoak:

o “Diario de un viaje al Congo. Casa Bulengo” (gaztelaniaz) (Iturria: ALBOAN)

<https://www.youtube.com/watch?v=iOSIwBHPjco>

o “Amparo Sanchezek egindako Mama Africa abestia” (gaztelaniaz) (Iturria: ALBOAN) <https://www.youtube.com/watch?v=4v6xGLQeFuU>

➤ Infografia: “Sexu indarkeria gatazketan” (Iturria: ALBOAN) <https://www.tecnologialibredeconflicto.org/wp-content/uploads/2015/02/poster4.jpg>